Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Ayuntamiento Udala
irun
Tokiko Gobernu Batzarrak gaurko bilkuran onetsia.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local en sesión de este día.
Irún, 2020/12/30
IDAZKARIA/EL SECRETARIO

2019-2020 EKITALDIETAKO IRUNGO UDALAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA TOKIKO SEKTORE PUBLIKOKOAK DIREN ERAKUNDEETAKO URTEKO KONTUEN KANPO AUDITORIARAKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE AUDITORÍA EXTERNA DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN Y DE LAS CUENTAS ANUALES DE LAS ENTIDADES INTEGRANTES DEL SECTOR PÚBLICO LOCAL, EJERCICIOS 2019-2020

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	KONTUHARTZAILETZA OROKORRA / INTERVENCION GENERAL
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2019ZAUN0090

1. XEDEA

Kontratu honen xedea da ekitaldi bakoitzaren amaieran, Irungo Udalaren eta sozietate publiko hauen urteko egoerak eta kontuak ikuskatzeko eta berraztertzeko lanak egitea. Lan horietan kontuan hartuko dira Irungo Udalaren Sektore Publikoko entitateek ekitaldian egindako eragiketa guztiak (aurrekontu barrukoak, aurrekontutik kanpokoak, ondarezkoak eta altxortegikoak). Hona Irungo Udalaren Sektore Publikoa osatzen duten entitateak:

- Irungo Udala
- ADEBISA Bidasoko Garapen Agentzia SA
- IRUNVI Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa NSA
- Bidasoko Erakustazoka SA

1.- OBJETO

Es objeto del presente contrato la realización de los trabajos de auditoría y revisión de los estados y cuentas anuales formados a la terminación de cada ejercicio, representativos de todas las operaciones presupuestarias, extrapresupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio por las entidades integrantes del Sector Público Local del Ayuntamiento de Irun, concretamente:

- Ayuntamiento de Irun
- Agencia de Desarrollo del Bidasoa, S.A. – ADEBISA
- Sociedad Municipal para la Vivienda de Irun, S.A. – IRUNVI
- Recinto Ferial del Bidasoa, S.A.,

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 5NBW-CHOE-F47K-6XLW
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (13/11/2020 12:11 CET)

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

- BLAIA Irungo Udal Hileta Zerbitzuak SA
- Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoa
- Servicios Funerarios Municipales de Irun, S.A. - BLAIA
- Consorcio Transfronterizo Bidasoa-Txingudi

2.- BALDINTZA OROKORRAK

Auditoretzako profesionalek egingo dute ikuskapen lana, auditorearen ardurapean eta Irungo Udaleko kontu hartzailearen begiradapean, indarrean dauden auditoretza araudiak (bereziki, Estatuko Administrazioko Kontuhartzailetza Nagusiak emandako auditoretza arau teknikoek) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak eta Kontuhartzailetzak emandako Finantza Kontrolaren Urteko Planak xedatzen dutenari jarraikiz betiere.

Aipatutako txosten eta azterketak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko dira, paperean eta euskarri elektronikoan (Word eta Pdf formatuan, edo formatu baliokidetan).

2. CONDICIONES GENERALES

El trabajo de auditoría será realizado por profesionales de auditoría bajo la responsabilidad de la persona auditora y la supervisión del interventor del Ayuntamiento, todo ello de acuerdo con la normativa vigente en materia de auditoría (en particular, las normas técnicas de auditoría emitidas por la IGAE), lo dispuesto en el Decreto Foral 32/2018 de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y el Plan Anual de Control Financiero formulado por la Intervención.

Todos los informes y análisis mencionados en este pliego deberán presentarse tanto en euskera como en castellano, en soporte papel y electrónico (en Word y Pdf, o formatos equivalentes).

3.- LAN TALDEA

Kontratua gauzatzera atxikitako lantaldea sektore publikoko entitateetan auditoretza lanak egiteko titulazioa eta gaikuntza duten eta sektore publikoan bi urteko esperientzia duten hiru profesionalek osatuko dute gutxienez. Txostenak sinatzen dituen auditorea ROAC-en alta emanda egongo da. Auditoreak landa-lana tokian bertan zuzentzen ez duenean, laugarren profesional batek parte hartuko du lantaldean, eta taldea zuzenduko du landa-lana egin bitartean. Lantaldearen osaeran edozein aldaketa eginez gero, kontratuaren arduradunak baimendu beharko du.

3. EQUIPO DE TRABAJO

El personal adscrito a la ejecución del contrato, en número no inferior a tres personas, estará integrado por profesionales con la titulación y habilitación necesarias para la realización de los trabajos con al menos dos años de experiencia en trabajos de auditoría en entidades del sector público. La persona auditora que firme los informes deberá estar dada de alta en el ROAC. Cuando la persona auditora no dirija *in situ* el trabajo de campo, deberá formar parte del equipo una cuarta persona que asumirá la dirección del equipo durante el trabajo de campo.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 5NBW-CHOE-F47K-6XLW

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (13/11/2020 12:11 CET)

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Lantaldearen osaeran edozein aldaketa egiteko, kontratuaren arduradunak baimena eman beharko du.

Cualquier modificación de la composición del equipo de trabajo deberá ser autorizada por la persona responsable del contrato.

Beren jardun profesionalarekin zerikusia duen orotan, auditoreak independenteak izango dira, eta posizio horretan eta objektibotasun osoz jardungo dute.

En todo lo relacionado con su actuación profesional, Las personas auditoras gozarán y mantendrán una posición de independencia y actuarán con total objetividad.

Bai lanak egiteko, bai txostenak prestatu eta idazteko, behar bidezko arreta profesionalez jokatuko da.

Tanto la ejecución de los trabajos como la preparación y redacción de los informes se realizarán con la debida diligencia profesional.

Auditorea da profesionalki txostenaren edukiaren eta ondorioen erantzulea. Finkatutako arauak betetzeak eta bere txostenean adierazitako helburuak eta irismenak mugatuko dute auditorearen erantzukizun profesional hori.

La persona auditora es responsable profesionalmente del contenido del informe y de sus conclusiones. La responsabilidad profesional de la persona auditora quedará limitada por el cumplimiento de las normas establecidas y por el objetivo y alcance expresado en su informe.

Ikuskatzaileek bere jarduketetan lortutako informazioaren konfidentzialtasuna mantendu eta bermatu beharko dute, legezko xedapenen zabaltasunarekin eta mugekin.

Las personas auditoras deberán mantener y garantizar la confidencialidad acerca de la información obtenida en el curso de sus actuaciones, con la amplitud y limitaciones de las disposiciones legales.

4.- LAN-HEDADURA

Lan hauek egin beharko dira:

a) Finantza auditoretzako txosten bat egitea, bertan ikuskatutako ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egokitzapenaren gaineko iritzia adieraziko da aplikatu beharreko kontabilitate araudiarekin eta printzipioekin bat ote datorren.

b) Aipatutako mendekotasun entitate bakoitzeko finantza auditoretzako txosten bat egitea, ikuskatutako ekitaldi bakoitzaren amaierako likidazio edota urteko kontuak aplikatu beharreko kontabilitate araudiarekin eta printzipioekin bat ote datozen dioena.

4. ALCANCE

El alcance del trabajo a realizar consiste en:

a) Emitir un informe de auditoría financiera expresando opinión sobre la adecuación de la liquidación del respectivo presupuesto del ejercicio auditado a la normativa y los principios contables de aplicación.

b) Emitir, por cada una de las entidades dependientes, un informe de auditoría financiera expresando opinión sobre la adecuación a la normativa y a los principios contables de aplicación de la liquidación y/o de las cuentas anuales formuladas al cierre de cada ejercicio

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 5NBW-CHOE-F47K-6XLW

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (13/11/2020 12:11 CET)

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

auditado.

c) Tokiko Sektore Publiko osatzen duten entitate bakoitzaren kontratuzko jardunari buruzko txosten bat egitea (udala, sozietateak eta partzuergoa) ekitaldian formalizatutako kontratuen lagin baten azterketan oinarrituz; alde horretatik, laginaren neurria eta ezaugarriak esleipendun proposamenean zehaztatutakoa izango da. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren ikuspegitik egingo da txostena, eta helburu nagusia izango da barne kontrolaren indargune eta ahulguneak detektatzea, hura betetzeko prozedurak ezartzeko.

c) Emitir, por cada una de las entidades públicas integrantes del Sector Público Local (ayuntamiento, sociedades y consorcio), un informe acerca de la actividad contractual, a partir del análisis de una muestra de los contratos formalizados durante el ejercicio. El tamaño y características de la muestra será la indicada en la proposición que resulte adjudicataria. Este informe se elaborará desde la perspectiva de la entrada en vigor del Decreto Foral 32/2018 de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y tendrá como fin principal detectar las fortalezas y debilidades del control interno para implantar los procedimientos que permitan su cumplimiento.

d) Tokiko sektore publikoa osatzen duten erakunde publiko bakoitzeko (udala, sozietateak eta partzuergoa), norbere eragiketen balorazio independente bat egin beharko da, eta helburua izango du entitate horrek eskura dituen baliabideak erabiltzean lortu duen eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-maila ebaluatzea, egon daitezkeen gabeziak hautematea eta zuzendaritzari dagozkion gomendioak proposatzea.

d) Emitir, por cada una de las entidades públicas integrantes del Sector Público Local (ayuntamiento, sociedades y consorcio), una valoración independiente de sus operaciones con la finalidad de evaluar el nivel de eficacia, eficiencia y economía alcanzado por ésta en la utilización de los recursos disponibles, detectar sus posibles deficiencias y proponer a la dirección las recomendaciones oportunas.

e) Ondarearen kontabilitatea aztertzea. Irungo Udalaren eta aipatutako entitate bakoitzaren ikuskatutako urte bukaerako egoera balantzea eta Emaitza Kontua aztertzea, auditoretza arazo nagusiak detektatzeko eta haiek konpontzeko modua eta epea adieraziko dituen txosten bat egiteko xedeaz.

e) Análisis de la contabilidad patrimonial. Análisis del balance de situación y de la Cuenta de Resultados del Ayuntamiento de Irun y de las entidades anteriormente mencionadas al cierre del ejercicio auditado, con objeto de emitir un informe que detecte los problemas de auditoría más significativos y que indique la forma y el plazo de solución de los mismos.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 5NBW-CHOE-F47K-6XLW

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (13/11/2020 12:11 CET)

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

f) Tokiko Sektore Publikoaren administrazio eta kontabilitate prozedurak hobetzeko, auditoreak egoki deritzon gomendioen gaineko dokumentu bat egitea. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren ikuspegitik egingo da txostena, eta helburu nagusia izango da barne kontrolaren indargune eta ahulguneak detektatzea, hura betetzeko prozedurak ezartzeko.

f) Emitir un documento con las recomendaciones que el auditor considere oportunas para la mejora de los procedimientos administrativos y contables del Sector Publico Local. Este informe se elaborará desde la perspectiva de la entrada en vigor del Decreto Foral 32/2018 de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y tendrá como fin principal detectar las fortalezas y debilidades del control interno para implantar los procedimientos que permitan su cumplimiento.

5.- LANAK EGIKARITZEA

Bi fasetan egingo dira lanak: atariko fasean eta azken fasean.

Atariko fasea kontratua esleitu ondoren egin beharko da, eta haren xedea da auditoretza-arriskuak zehaztea eta egin beharreko auditoretza-lanak planifikatzea bere hiru alderdietan (kontuak, legezkotasuna eta operatiboa).

Fase hori amaitutzat emateko, honako hauek entregatu beharko dira gutxienez: arrisku-azterketaren ondorioak, aurreikusitako lan-egutegia eta zirkularizatu beharreko hirugarrenen aurretiazko hautaketa.

Azken fasea hasteko, dagokion dokumentazioa eskura eduki beharko du enpresa esleipendunak, eta amaitu, hurrengo ekitaldiko 1. lauhilekoan amaituko da, behin betiko txostenak entregatuta. Sozietate publikoen kasuan, txostenarekin batera, urteko kontuen formulazioa ere aurkeztu beharko da. Lanak direla-eta hori ezin bada egin, udalak gehiene ere sei

5. EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS

La realización del trabajo comprenderá dos fases: La Fase preliminar y la Fase final.

La Fase preliminar, que deberá realizarse tras la adjudicación del contrato, tiene como objeto determinar los riesgos de auditoría y realizar la planificación de los trabajos de auditoría a realizar, en sus tres vertientes (de cuentas, de legalidad y operativa).

Esta fase se entenderá concluida con la entrega de, al menos, las conclusiones del análisis de riesgos, el calendario previsto de trabajo y la selección preliminar de terceros a circularizar.

La Fase final deberá iniciarse una vez obre en poder de la Empresa adjudicataria la documentación pertinente y finalizarse dentro del primer cuatrimestre del ejercicio siguiente, con la entrega de los informes definitivos. En el caso de las sociedades públicas, el informe deberá emitirse a tiempo de acompañar la formulación de las respectivas cuentas anuales.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 5NBW-CHOE-F47K-6XLW
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (13/11/2020 12:11 CET)

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

hilabeteko epean aurkeztu beharko ditu behin betiko txostenak; gainerako erakundeek hiru hilabeteko epea izango dute horretarako, lanen azken fasea hasten denetik.

Cuando por el desarrollo de los trabajos lo anterior no sea posible, el plazo máximo para la entrega de los informes definitivos será de seis meses, en el caso del ayuntamiento, y tres meses, en el caso del resto de las entidades, desde el inicio de la Fase final de los trabajos.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 5NBW-CHOE-F47K-6XLW

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Laguna Serrano INTERVENTOR GENERAL (13/11/2020 12:11 CET)